



# Jesus Legarrea

## “Maila gorenean egotea izanen da, munduko jokalaria hoberenetariko batekin”

Urtarriletik aurrera entrenatzaile lanak urtebetez utzi, eta caddie-a izanen da Jesus Legarrea eltsoarra. Hala eskatu dio munduko 90 hobereenen artean dagoen eta Espainiako laugarrena den Jorge Campillo golf jokalaria. Batzuek uste dute poltsa eramatea besterik ez duela egiten caddie-ak, baina hori baino askoz gehiago da. Campillori babes osoa ematea izanen da bere lana: laguntza teknikoa eta emozionala. Hau da, gauzak okertzen direnean bere jokora itzultzen laguntzea.

### • LAN BEREZIA DA, BERAZ, CADDIE-ARENA, EZTA?

Bai, horrela da, beharbada beste kiroletan ez dagoen figura bat da. Pilotako botileroaren antzekoa izan liteke, baina ez da gauza bera. Ni txapelketa hasi baino lehenago bertan nago, zelaiak ikusten ditut, eguraldia eta klima nola dagoen, dena ongi prestatua utzi behar dut txapelketa hasi baino lehen. Baita nutrizio kontuetan ere dena kontrolpean izan behar dut, ura noiz edan behar duen, fruitu lehorrak eta fruta jan ditzan adi egon... Gure lanak anitz dira: poltsa eramatek hasita- hori da kanpotik gehien ikusten dena- jokalariai babes osoa emateraino. Hau da, gauzak ongi ez doazenean animatzeko ere bagaude, jokalariaekin hitz egin behar izaten dugu, hura lasaitu, bere onera itzularazi.

### • ASPALDITIK EZAGUTZEN ZENUTEN ELKAR, EZTA?

Bai, profesionalak izan aurretik. Bera Estatu Batuetara joan zen ikastera, eta orduan gure ibilbideak zertxobait aldendu ziren, baina profesional moduan hasi ginenean, berriro ibilbide paraleloa izan genuen: Challenge Tour-ean (2. mailan) elkarrekin ibili ginen, 2011-2012 bitartean. Bere caddie-a izendatzerakoan dugun harremana

kontuan izan du. Ezagutzen nau, eta nirekin konfiantza handia du. Horregatik egin du balantzak nire aldera, esperientzia handiko caddie-ak baitzeuden aukeratzeko.

### • URTARRILEAN HASIKO AL ZARETE?

Urtarrilean aurrendenboraldi txiki bat eginen dugu Sevillan, han aritzen baita bere entrenatzailea. Han izanen naiz hiru egunez. Orain tokatzen zaidana lanari neurria ahalik eta lasterren hartzea da.


### • ETA, LEHENENGO TORNEOA NOIZ IZANEN DUZU?

Urtarrilaren 12an Abu Dhabira goaz. Desertuko hiru txapelketa daude jarraian: Abu Dhabin, Dubain eta Saudi Arabian. Gero, bi astez, atsedean hartu, eta Mexikon mundiala jokatu dugu. Bertan Jon Rhamen kontra-eta jokatu dugu. Gogorra izan behar da familiarengatik, aste asko emanen baititut etxetik kanpo. Baina ilusio handiz hartu dut, gogotsu.

### • ESPERO ZENUEN?

Ez, ez nuen batere espero. Egun batean telefonoz deitu zidan Campillok, eta familia proiektuak zirela medio, Borjak, orduko caddie-ak, lana utzi behar zuela esan zidan. Teknologiarekin dudaren esperientzia lagungarria izan da. Hemen, Ultzaman, 10 urte dira TrackMan-a

erabiltzen dugula: radar bat da, eta pilotaren abiadura, hegan egiteko modua, eta jotzeko modua aztertu eta horren berri ematen dizu; Campillok horretan hobetu behar duela pentsatzen du, eta beste caddie batzuek ez dute radar hori erabili. Aukera hau niretako izugarria izan da, eta ezin nuen ezetzik esan. Maila gorenean egotea izanen da, munduko jokalaria hoberenetariko batekin, ikasten jarraituko dut, eta eskertzen diet aukera hau eman izana.



Ultzamako golf eskolan izan ginen Jesus Legarrearekin ▲